

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 3,5 milioi euro bideratuko ditu nekazari gazteak Nafarroan lanean has daitezen

Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 23an amaituko da

Osteguna, 2016.eko abuztuak 25

Nafarroako Gobernuak 3,5 milioi euroko laguntzak emango ditu nekazari gazteak bertan lanean has daitezen, eta eskaerak aurkezteko epea azaroaren 23an amaituko da.

Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emandako ebazpen batean jasotzen denez, [Nafarroako Aldizkari Ofizialean \(NAO\)](#) gaur argitaratua, laguntza horien helburua gazteak bideragarriak diren ustiapenetako nekazaritza-jardueran lanean aritzea da, jarduera hori sustatzea, biztanleria landa-eremuetan finkatzeko, jarduera ekonomikoari eusteko eta lurraldeko iraunkortasun eta garapen orekatua ziurtatzeko.

Nafarroako nekazaritza-ustiapenen lehiakortasuna hobetu nahi da ere landa-eremuan sare sozioekonomiko egonkor, dinamiko eta erakargarri bat mantentzen dela ziurtatzeko, aukera-berdintasuneko eta bizi-kalitateko baldintza egokiekin.

Laguntza horiek eskuratu ahalko dituzte lehen aldiz nekazaritza-ustiapen batean lanean hasiko diren pertsona fisikoek eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

Prima bakarrekoa izango den laguntzaren zenbatekoa 37.375 euro da. Bi ordainketa berdinetan ordainduko dira, eta azken ordainketa enpresa-plana behar bezala egikaritzearen mende geratuko da.